2022ko uztailean erregistratutako langabezia

2022ko ekainean zehar LANBIDEko bulegoetan % 0,4 langabe gutxiago erregistratu dira, langabe kopurua 111.194 da, aurreko hilean baino 448 gutxiago. Uztaileko datuak positiboak izan ohi dira, eta, hil honetako datuek joera hori jarraitu izan dute. Hala ere, azken urteetako uztaileko langabezia jaitsiera sakonagoa izan da aurtengo beherakadarekin alderatuz.



	uzt.-08	uzt.-09	uzt.-10	uzt.-11	uzt.-12	uzt.-13	uzt.-14	uzt.-15	uzt.-16	uzt.-17	uzt.-18	uzt.-19	uzt.-20	uzt.-21	uzt.-22
Saldoa	-156	606	-553	-4.317	-269	-2.420	-371	-3.032	-2.961	-397	572	1.741	-1.088	-3.157	-448

Aurreko urteko ekainarekin alderatuz, 8.008 pertsonatan murriztu da langabezia. Errekuperazio azkar baten ondotik, urte-arteko saldoaren hobekuntza moteltzen ari da. V erako profila du krisiak; langabeziaren hazkunde azkar eta haundi baten ondotik, ezaugarri berberak dituen errekuperazioa.



- **SEXUA**

Azken hilabetean, gizonezkoen artean murriztu da batez ere langabezia (-353); emakumeen artean, murrizketa apalagoa izan da (-95). Urte arteko saldoari dagokionez ere, gizonezkoen artean gehiago murriztu da langabezia (-4.178) emakumezkoen arten baino (-3.830). Krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa izan dute. 2019ko ekainarekin alderatuz, 537 gizonezko gutxiago daude langabezian, emakumezkoak, berriz, 1.353 gutxiago dira. Gaur egun langabeen % 57,8 emakumeak dira.

• ADINA

Azken hilabete honetan langabezia adin tarte guztietan murriztu da, 25-34 urte artekoen artean izan ezik; % 1,68 hazi da tarte horretan. Beherakada handiena 25 urtetik beherakoan artean erregistratu da (-% 5,72). Urte arteko bilakaeran, 44 urtetik beherakoen artean jaitsi da gehien langabezia; 35-44 urte artekoetan izan du bilakaera onena. 54 urtetik gorakoen tartean hazi da soilik langabezia; % 1,44, hain zuzen ere.

• JARDUERA EKONOMIKOA

Uztailean langabezia sektore guztietan murriztu da, zerbitzuetan izan ezik; % 0,88 hazi baita. Balio erlatiboetan, lehen sektorean murriztu da gehien (-% 5,25); industrian % 1,89 murriztu da eta eraikuntzan % 1,83. Lan-esperientziarik ez dutenen artean % 4,43 murriztu da langabezia hil honetan. Iazko egoerarekin alderatuz gero, aipatzekoa da industrian (-% 12,53), eraikuntzan (% -10,12) eta lehen sektorean (%-11,03) egon diren beherakadak. Zerbitzuetan % 4,86 murriztu da soilik. Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean, % 8,99 murriztu da azken urtean.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren gorakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

47 Txikizkako merkataritza ..... -240

87 Egoitza-establezimenduetako laguntza..... -184

56 Janari eta edari zerbitzuak..... -141

86 Etxeetako jarduerak..... -137

46 Nekazaritza eta abeltzaintza ..... -103

Aitzitik, ekainean erregistratutako langabeziaren hazkunde handiena izan duen jarduera honakoa izan da:

85 Hezkuntza..... ..... +1.036

84 Administrazio publikoa..... +119

78 Enpleguarekin lotutako jarduerak..... +115

84 Elkarlaneko jarduerak..... +91

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 613 pertsonatan murriztu da (-% 1,1) eta epe laburrekoa, ere, murriztu egin da (165 pertsona gutxiago, -% 0,80). Urte osoari begiratuz gero, epe luzeko langabeen artean murrizketa eman da (-% 13,66); epe laburrekoen kasuan, aldiz, hazi egin da (% 1,5). Krisiaren luzatzeak epe luzeko langabezia nabarmen igotzea eragin zuen; gaur egun, zorionez, bestelakotzen ari da egoera; 55.818 langabe iraupen luzekoak dira, langabe guztien % 50,2a.

Epe luzeko langabezia handiagoa da 44 urtetik gorakoen artean; baita emakume eta Bizkaian erroldatutakoen artean ere. Azken hilabetean, bilakaera hoberena 30-44 urte artekoak eta Araban bizi direnek izan dute.

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Uztaileko bilakaera honako hau izan da: Araban langabezia % 1,32 murriztu da, ekainean baino 255 langabe gutxiago, 19.070 langabe guztira; hil honetan bilakaera hoberena erregistratu

duen lurraldea izan da. Gipuzkoan % 0,74 murriztu da, 218 pertsona gutxiago daude langabezian ekainarekin alderatuta (langabetu kopuru totala 29.110ekoa da). Azkenik, Bizkaia da langabezia hazi den lurralde bakarra; 25 langabe gehiago baitaude (% 0,04ko hazkundea), langabetu kopurua 63.014 da.

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio hoberena % 7,34ko murrizketarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 6,88ko murrizketarekin eta azkenik Araban % 4,35 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean langabezia 185 pertsonatan hazi da (+% 0,85), Vitoria-Gasteizen 213 pertsonatan murriztu da (-% 1,43) eta Donostian 157 pertsonatan murriztu da (-% 2,19). Murrizketa nabarmenak izan dituzten zenbait eskualde, Enkarterriak (-107), Oarsoaldea (-61), Busturialdea (-47) eta Aiarako Bailara (-46) izan dira. Bestalde Txorierri (+32), Urola Garaia (+36), Deba Garaia (+45) eta Gobelan (+47) erregistratu dira hazkunde nabarmenenak.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Alonsotegi (% 17,62), Lanestosa (% 17,27), Oion (% 16,65), Sestao (% 16,39), eta Amurrio (% 15,02).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2022ko uztailean 37.782 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 1.233 langabe gehiagok. Langabeen % 34k gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea du. 21.230 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 19,1 dira horiek. 16.552 langabek (% 14,89), berriz, langabezia prestazioaren bat jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 37,1), Bizkaian % 32,7koa da eta Araban % 33,3koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 1,23 puntu hazi da; aurreko urtearekin alderatuz, aldiz, murriztu egin da, 0,06 puntu hain zuzen ere.

Uztailean, ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua handitzea ohikoa da; hezkuntzako langile asko langabezia egoerara joaten baita.

- **JATORRIA**

Langabeen % 15,7 (17.467 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia murriztu egin da atzerritarren artean (-% 3,85); bertakoen artean, aldiz, apur bat hazi da (+% 0,27). Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 5,21 murriztu da, eta bertakoen artean % 6,99.

Langabe atzerritarren % 33,6 Afrika iparraldekoak dira, % 22,2 Latinoamerikatik datoz, % 19,2 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 6,2 Asiatik. Uztailean Afrikako iparraldetik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-501); Europako Esparru Ekonomikotik kanpoko herrialderen batetik etorritakoen artean, aldiz, gehien hazi da (+223).

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 59,6k (66.225 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 1.100 langabetu gutxiago erregistratu dira; % 1,63 murriztu da langabezia azken hilean. Azken urtean % 6,64 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,8 dira. Talde horretan % 1,36 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 8,18.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 20.625 dira, hau da, langabeen % 18,5. Talde hau uztailean zehar % 0,36 murriztu da, eta azken urtean % 5,51.

Azkenik, langabeen % 13,1ek (14.528 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 5,17 hazi da langabezia azken hilabetean eta, azken urtean, aldiz, % 7,75 murriztu da.

- KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 3.230 langabe gehiago daude aurreko hilean baino (% 0,11ko gorakada). Guztira 2.883.812 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 0,4 jaitsi da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 0,4 murriztu da, Errioxan % 2,6 hazi da, Kantabrian % 2,52 murriztu da eta Gaztela eta Leonen % 0,18 murriztu. Katalunian % 0,98 hazi da eta Madrilen ere hazi egin da; % 0,79 hain zuzen ere.

Lan-eskatzaile langabeak 2022eko uztailean

	Uzt-2022	Eka-2022	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	46.918	47.271	-353	-0,75
EMAKUMEZKOAK	64.276	64.371	-95	-0,15
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	17.087	17.282	-195	-1,13
GIZONEZKOAK	8.143	8.241	-98	-1,19
EMAKUMEZKOAK	8.944	9.041	-97	-1,07
25-44 URTE:				
GUZTIRA	33.549	33.666	-117	-0,35
GIZONEZKOAK	12.801	12.947	-146	-1,13
EMAKUMEZKOAK	20.748	20.719	29	0,14
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	60.558	60.694	-136	-0,22
GIZONEZKOAK	25.974	26.083	-109	-0,42
EMAKUMEZKOAK	34.584	34.611	-27	-0,08
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.201	2.323	-122	-5,25
INDUSTRIA	11.683	11.908	-225	-1,89
ERAIKUNTZA	7.019	7.150	-131	-1,83
ZERBITZUAK	76.569	75.903	666	0,88
AURREKO ENPLEGURIK GABE	13.722	14.358	-636	-4,43
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	19.070	19.325	-255	-1,32
BIZKAIA	63.014	62.989	25	0,04
GIPUZKOA	29.110	29.328	-218	-0,74
EAE	**111.194**	**111.642**	**-448**	**-0,40**

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.724	10,0%	-16	-0,43	-266	-6,67
Oarsoaldea	3.382	9,2%	-63	-1,83	-318	-8,59
Donostia-S.Seb.	7.023	7,9%	-157	-2,19	-722	-9,32

Donost.Mendebaldea	2.944	7,8%	-9	-0,30	-207	-6,57
Tolosaldea	1.850	7,8%	-31	-1,65	-176	-8,69
Urola Erdia	1.172	7,5%	5	0,43	-70	-5,64
Goiherri	1.618	7,5%	3	0,19	32	2,02
Deba Garaia	2.332	7,7%	45	1,97	-61	-2,55
Deba Behera	2.584	9,8%	3	0,12	-177	-6,41
Urola Garaia	1.083	8,8%	36	3,44	-25	-2,26
Urola Kosta	1.398	6,2%	-34	-2,37	-162	-10,38
GIPUZKOA	**29.110**	**8,2%**	**-218**	**-0,74**	**-2.152**	**-6,88**
Vitoria-Gasteiz	14.697	11,7%	-213	-1,43	-751	-4,86
Aialako Ibarra	2.130	11,4%	-46	-2,11	-232	-9,82
Arabar Errioxa	595	11,0%	-29	-4,65	-85	-12,50
Arabako lautada	670	8,8%	-4	-0,59	-42	-5,90
Gorbeia inguruak	302	6,5%	-16	-5,03	-7	-2,27
Arabako Ibarrak	399	7,8%	-17	-4,09	-1	-0,25
Arabako Mendialdea	97	6,2%	0	0,00	-8	-7,62
ARABA	**19.070**	**11,4%**	**-255**	**-1,32**	**-867**	**-4,35**
Gobela	4.486	8,9%	47	1,06	-443	-8,99
Txorierri	2.094	9,2%	32	1,55	-251	-10,70
Uribealdea	2.819	8,5%	-23	-0,81	-283	-9,12
Durangaldea	3.194	8,6%	19	0,60	-242	-7,04
Busturialdea	2.021	9,4%	-47	-2,27	-153	-7,04
Lea-Artibai	898	7,5%	6	0,67	-93	-9,38
Enkarterriak	1.937	12,7%	-107	-5,23	-140	-6,74
Arratia-Zornotza	1.381	7,9%	-34	-2,40	-143	-9,38
Arratia-Nerbioi	1.298	10,1%	-12	-0,92	-71	-5,19
Bilbo	21.896	13,0%	185	0,85	-1.576	-6,71
Ezkerraldea	16.446	13,3%	-35	-0,21	-1.294	-7,29
Ibaizabal	4.467	11,1%	-1	-0,02	-281	-5,92
BIZKAIA	**63.014**	**11,3%**	**25**	**0,04**	**-4.989**	**-7,34**
EAE	**111.194**	**10,3%**	**-448**	**-0,40**	**-8.008**	**-6,72**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.